



ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2020 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

HAUTATUTAKO EK EGIN BEHARREKOAK: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK, PRAKTIKA-FASEA (DESTINOAK AUKERATZEA...), LEKUALDATZE-LEHIAKETA

1) DOKUMENTUAK AURKEZTU

1.1. Epea: 2022ko otsailaren 24tik martxoaren 15era arte, biak barne (hogein egun naturaleko epea, izangai hautatuen behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritz Aldizkarian argitara eman – 2022ko otsailaren 23an- eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita)

1.2. On-line aurkeztu:

Dokumentuak honako Interneteko helbide honetan aurkeztuko dira:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) –
«EPE 2020. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautatuek dokumentazioa aurkezteko»

1.3. Aurkeztu beharreko dokumentuak: Deialdiaren 11. oinarrian adierazten direnak, «Hautatuek agiriak entregatzeko» izeneko ereduarekin batera (Interneteko helbidean eskuragarri).

OHARRA: «Ordezko zerrenda»-n dauden izangaiek (hautatuen behin betiko zerrenda argitaratuko den egun berberan argitaratuko da), ez dira hautatuak izan. Beraz, **ez dituzte agirik aurkeztu behar.**

Dokumentazio jakin bat aurkezteari buruzko zehaztapen batzuk:

- **Sartzeko eskatzen diren tituluak, NANA eta sexu-delituei buruzko ziurtagiria** ez dira aurkeztu beharko, baldin eta kontsultatzeko baimena ematen bada. Tituluari dagokionez, ez da aurkeztu beharko, ezta baimenik eman ere, hautaketa-prozesu honetan aurkeztu bada. Baimena Interneteko helbidean eman ahal izango da, dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean.
- **Zinpeko aitorenaren eredu**a eskuragarri dago Interneteko helbidean, dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean.
- Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa **irakaskuntza-esperientziaren** bidez egiaztatzeari dagokionez, ez da dokumentaziorik aurkeztu beharko, baldin eta ikastetxe publikoetan eta pribatuetan emandako zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude (kontsultatu hemen: www.irakasle.eus (Erabiltzailea eta Pasahitza



sartu) – “Espediente Pertsonala” – Zerbitzu-orria.

Langileen Erregistroan jasota ez badago, deialdiaren I. eranskineko I. atalean adierazitako egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

- **Desgaitasun-txandan** parte hartu duenak, aukeratu duen kidegoari eta espezialitateari dagozkion zereginak eta egitekoak betetzearekin bateragarria dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du; erreferentzia gisa hartuko da “*Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren balorazio profesionalerako indarreko gida*”, lanpostuen zereginak eta eskakizun psikofisikoak zehazten dituenena: <https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Conocenos/Publicaciones/28156/47075/3052/198947#198947>

1.4. Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiririk aurkezten ez dutenek, edo agiri horien azterketatik deialdiaren 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 oinarrietan adierazitako baldintzetariko baten jabe ez direla ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik merezi dezaketen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

1.5. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean inoiz lan egin ez duten hautatuek

Praktikak egiteko lanpostua esleitu ondoren, eta sisteman alta emateko, “**Datu-fitxa**” inprimakia bete eta bidali beharko dute lanpostua esleitu zaion lurraldeko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara:

GIPUZKOA: bhgipuzkoa@euskadi.eus

BIZKAIA: bizkaiabh@euskadi.eus

ALAVA: arababh@euskadi.eus

Inprimakia eskuragarri dago:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «EPE 2020. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Berriak» atala
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/> «Lan-arloak» – «Langileak» – «EPE 2020. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozedura gainditzea - Hautatuak»

2) PRAKTIKA-ALDIA

2.1. Lanpostuak eskatu 2022/2023 ikasturtean praktikak egiteko

Nola egin eskaera: ikasturte hasierako esleipen-prozesuaren aplikazio informatikoaren bidez (2022ko ekainaren bigarren hamabostaldian gaituko da), Interneteko helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/> -> “Ikasturte hasierako esleipena. 2022-2023”.

Bertan, praktiketarako lanpostuak eskatzeko behar den informazio guztia argitaratuko da.

**Zein lanpostuak eskatu behar dituzte:**

- Izangaia hautatua izan den espezialitateko lanpostuak.
eta
- irakaskuntzan %100-eko orduak.

Bi espezialitatetan hautatutako izangaiek: aukeratu beharko dute zein espezialitatetan egin nahi dituzten praktikak lehenengo ikasturtean (2022-2023); eta Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari idatziz jakinarazi beharko diote (Donostia kalea 1, Lakua, Vitoria-Gasteiz, 01010 posta-kodea). Idatzia aurkeztu beharko dute hautatutako izangaiek dokumentazioa aurkezteko duten epean.

Lehenik hautatutako espezialitatean praktikak gainditu ondoren, hurrengo ikasturtean hautatu dituzten beste espezialitatean egin beharko dituzte praktikak.

2.2. Nork ez du lanpostuak eskatu behar:

Eskabideak aurkezteko epea amaitu zenean egiaztatzen badute ikasturte batean gutxienez irakasle kidego bateko karrerako funtzionario gisa lan egin dutela, bai eta goragoko maila baten sailkatuta dagoen irakasleen kidego batera iristeko prozeduran hautatutako izangaiek ere, baldin eta haien jatorrizko kidegoan jarraitzea erabaki badute, karrerako funtzionario izendatu arte.

Praktika-fasea egiteko edo jatorrizko kidegoan egoteko aukera dokumentu honetan adierazitako Interneteko helbidean adierazi beharko dute, dokumentazioa entregatzeko gaitutako atalean.

2.3. Destinoak esleitzeko irizpidea: goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran hautatuak izan diren izangaiek lehentasuna izango dute esleipen-prozesuan; eta ondoren, batera, txanda irekiaren eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandaren bidez hautatuak izan direnak. Bi kasuetan, lehentasuna izango da hautaketa-prozeduran puntuazio handiagoa lortu izana.

2.4. Praktikaldiak murriztea, hiruhileko batetik gorako iraupena (gutxienez 2/3eko eguneko lanaldiarekin)

Deialdiaren 13.1 oinarriko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoaren arabera jardungo da.

2.5. Praktikak ikasturte batez atzeratzea

Hurrengo kasuetan:

- aldi baterako ezintasun-egoera
- amatasun-baja
- aurreikusi gabeko eta salbuespenezko beste egoera, eta horrek praktikaldi horren ohiko garapena eragozten badio –Kalifikazio Batzordeak baloratuko du-

Agiri honetan adierazitako Interneteko helbidean, dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean, adierazi beharko da gertakaria jada gertatzen den eta 2022-2023 ikasturtean luzatuko dela aurreikusten den. Gertakaria geroago gertatzen bada, idatziz jakinaraziko zaio Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari (Donostia kalea 1, Lakua, Vitoria-Gasteiz; posta-kodea: 01010).

Dagozkion egiaztatzeak aurkeztu beharko dira. Aldi baterako ezintasun-egoera edo amatasun-baja kasuetan, aurkeztu behar duten eskaeraz aparte, dagokion agiriak tramitatu behar dituzte



(mediku/amatasun baja-agiriak) dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak ebazpena emango du, atzeratze-eskabidea baiesteko edo ukatzeko.

3) LEKUALDATZE-LEHIAKETAN PARTE-HARTZEA

Praktiketako funtzionarioek eta praktikaldia egitetik salbuetsita izanik (jatorrizko euren kidegoetan jarraitu nahi izan duten izangaiek) **lanpostu-hornikuntzarako deituko diren hurrengo lehiaketetan parte hartu beharko dute**, Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeren batean eta hautatuak izan diren espezialitatean, bere lehen behin betiko destinoa lortu arte.

Beraz, parte hartu beharko dute izango den hurrengo lekualdatze-lehiaketan (**2022ko azken hiruhilabetekoan izango da**). Gomendatzen da lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabidea betetzea ahal diren eskaera kopuru guztiekin.

Eskatutako ikastetxeetan destinorik ez badute lortzen, ofizioz eman ahal izango zaie destinoa, bertan lanpostu hutsik badago, 2022/2023 ikasturtean praktiketako funtzionario bezala lan egiten duten lurralde historikoan; salbu eta lekualdatze-lehiaketaren eskabidean bertan praktikak egin diren lurraldea desberdinak diren lurralde historikoa/k adierazten bada/badira.

Destinoen esleitzea hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera egingo da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 23an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA